



**Absentismoaren  
kudeaketa arduratsua**  
Ezarpen Gida

## 1. Politika

Erakundearen Zuzendaritzak barne politika bat definitzea gomendatzen dugu, bertan konpainiaren absentismoarekiko duen kezka eta horri dagokionez burutu beharreko jarduerak garatzeko erabakia adierazteko.

## 2. Komunikazioak

Politika hau enpresaren langile guztiei helarazi beharko zaie, bertan parte hartzea eta erakundearen proiektu berrian inplikatzeko sustatzeko.

## 3. Antolamendua

### Arduradunak izendatzea

Absentismoa kudeatzeko lanetan inplikaturako lan-taldeak eta horiek burutuko dituzten zereginak definitzea eta ezartzea. Besteak beste, honako hauek hartuko dituzte barne:

- Absentismoari buruzko datuen aldi

aldiko analisia

- Kasu esanguratsuen analisia
- Premiak atzematea
- Diagnostikoa eta ondorioak
- Neurrien gomendioa
- Jarduera plana: definizioa eta

garapena

- Bere ezarpena gainbegiratzea
- Neurriek izandako inpaktuaren jarraipena datuen aldi aldiko analisien bidez
- Eragindakoen prestakuntza eta informazioa

### Adierazleak definitzea

Absentismoaren eta hura kalkulatzeko irizpideen jarraipen lanak burutzeko erabiliko diren adierazleak definitzea.

Asepeyo Bulego Birtualean eskuragarri dagoen absentismoari buruzko txostena kontsultatzea, (<https://oficinavirtual.asepeyo.es/>).

### Helburuak finkatzea

Lortutako datuen eta horiek lortzeko irizpideen jarraipen lanak bideratu ahal izateko irizpideak ezartzea.

## 4. Analisia eta plangintza

Enpresan egokitzen jotzen dituzten jarraipen ildoak definitzea, aurretik egindako datuen analisiaren arabera.

## 5. Parte-hartzea

### Hedapena

Enpresaren langile guztiei informazioa hedatzea, batez ere honako hauei buruzko alderdiei dagokienez:

- Absentismoari buruzko datuak
- Enpresaren barne antolamendua eta absentismoa kudeatzeko lanez arduratzen diren esleitutako pertsonak
- Estrategiak
- Helburuak

### Langileen proposamenak eta ikuspegia

Langileei enpresaren absentismo arazoei buruz duten iritzia galdetzea eta euren hobekuntza proposamenak eta ideiak biltzea, baita aukerako konponbideak ere.

Helburua da langileek euren ikuspegia ekartzea eta enpresak etorkizunean har ditzakeen erabakietan parte hartzea, bereziki ezarri beharreko estrategiei dagokienez.

## 6. Kontrola eta jarraipena

- Analisiak burutzeko aldizkakotasuna ezartzea, datuen bilakaera behatu ahal izateko.
- Aldian aldiko bilerak burutzea, adierazleak kontrolatu eta jarraipena egiteko.
- Epeak kontrolatzea, eguneratzea eta/edo egokitzea, beharrezkoa izango balitz.
- Ezarritako estrategia egiaztatzea, helburuen bilakaeraren arabera eta, beharrezkoa izanez gero, euren premien arabera aldatzea.



Asepeyo, Gizarte Segurantzarekin Elkarlanean Diharduen Mutua, 151. zk